

OÑATIKO EAJ-PNVREN UDAL-TALDEAK TXAKETUAKO BIDEGURUTZEA BEREHALA ZABALTZEKO ESKATU DIO EH BILDUREN UDAL-GOBERNUARI

- **Jeltzaleek adierazi dute EH Bilduren gobernuak inposatutako neurri horrek ikaragarritzko zirkulazio-kaosa sortu duela eta lehenbailehen konpondu behar dela**
- **Jeltzaleek babesa eta laguntza eskaini die EH Bilduren gobernuak itxitako kaleetan (Kalezaharra, Kalebarria, Atzeko Kalea) kaltetuta suertatu diren merkatariei**

Oñatiko Udalak, EH Bilduren gobernupean, martxoan onartu zituen erdigunean trafikoa bideratzeko hainbat neurri. EAJ-PNVren udal-taldeak, ordea, martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran, irmoki salatu zituen bai erdiguneko kaleak piboteekin ixtea, bai aparkamendu mugatuak herritarrei sortu dien irisgarritasun-arazoa ere.

Ildo horretatik, jeltzaleek honakoa salatu nahi dute: Txaketuako bidegurutzea ixteko erabakia egunkarien bitartez ezagutu izana. Neurri horrek sekulako zirkulazio-kaosa eragin du herrian; baita makina bat eragozpen eta arrisku ere. Ondorioz, trafiko kopuru oso handia desbideratu du Bidebarrieta kalera, Portalekura edo saihebidera. Erabaki horren aurka dago Oñatiko EAJ-PNVren udal-taldea, eta hauxe adierazi du: “EH BILDUREN gobernuak inposatu egin du neurri hori, eta aurretik ez du azterketarik egin trafikoaren, ordutegiaren, intentsitatearen, eta abiapuntuaren edo noranzkoaren inguruko datuak eskuratzeko”. “Erabakiak auto-ilara handiak sortu ditu, herriko erdigunea erabat geldiarazi du, eta, gainera, herriko beste kaleetara eraman du arriskua inolako prebentzio-neurririk hartu gabe”, gehitu dute jeltzaleek.

Erabakiak eragindako anabasa ikusirik, EH Bilduren gobernuak kalkulatu ibili da zenbat ibilgailu igarotzen den Kalegoienetik 12:00ak eta 13:00ak bitartean. Zifra hirukoiztu egin dela egiaztatu dute; hain zuzen, 100etik 300era. Hori dela eta, herritarren presioa tarteko, EH Bilduren gobernuak behartuta ikusi du bere burua, eta iragarri du hurrengo asteetan zabalduko dela Txaketuako bidegurutzea lanegunetan.

Hala ere, EH Bilduren gobernuak sistema berria zein izango den erabaki arte eta beharrezko neurriak hartu arte, Oñatiko EAJ-PNVren udal-taldeak honakoa exijitu dio EH Bilduren gobernuari: Txaketua berehala irekitzea, eta, trafikoa goren dagoen orduetan, udaltzaingoaren laguntzarekin bideratzea automobil-ilarak. Horrez gain, jeltzaleek proposatu dute trafikoa asteburuan ixtea soilik, larunbateko 13:00etatik igande gauera arte.

Azkenik, jeltzaleek babesa eta laguntza agertu nahi die Kalezaharra, Kalebarria eta Atzeko Kaleko merkatariei. Izan ere, trafikora itxita egoteak kalte egin die bertako saltokiei nabarmen, eta bezeroak galdu dituzte. Sinadura-batzen ere ibili dira kale horietako merkatariek. “EAJ-PNVtik tokiko merkataritzaren bideragarritasuna babesten dugu, eta bat egiten dugu haien aldarrikapenarekin”, adierazi dute. “Horretarako, aipatutako kaleetara sarbidea malgutzera proposatzen dugu, epe motzean (3-5 minutu) bertan aparkatu ahal izateko”, amaitu dute.

OÑATIKO EAJ-PNVREN UDAL TALDEA

Oñatin, 2017ko maiatzaren 17an